



AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA, 2018RAKO ZERGEN ARLOKO NEURRIEI BURUZKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASI BAINO LEHENAGOKOA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, informazio publikoa emateko 2018rako zergen arloko neurrien arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, ekainaren 24ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

| | |
|--------------------|---|
| AURREKARIAK | 2014ko ekitalditik aurrera, indarrean dago Araban zuzeneko zergapetzearen eredu berria, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta oinordekotza eta dohaintzen zergari dagokienez. Horrekin amaitu zen 2013ko ekitaldirako ondarearen gaineko zerga berreskuratuta eta ezkontidearen edo zuzeneko ahaideen alde egindako dohaineko inter vivos eskualdaketak zergapetuta hasi zen erreforma-prozesua. |
|--------------------|---|



| | |
|--|--|
| KONPONDU NAHI DEN ARAZOAK | Eredu berria hiru urtez indarrean egon ondoren, egindako erreformaren emaitzak aztertu behar dira, erreforma onartu zenean planteatu ziren helburuak bete diren ala ez jakiteko. |
| TESTU ARAUEMAILEA ONARTZEA BEHARREZKOA DEN ETA AUKERARIK EGOKIENA DEN | <p>Azterketa hori egin eta gero, helburua da tributu batzuetan beharrezkoak diren aldaketak egitea bere egunean finkatu ziren helburuak betetzen direla ziurtatzeko. Helburu horien xedea da Araba modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorrago lortzea, eta, bidez batez, zerga-sistema bidezkoago, progresiboago eta eraginkorrago bat sustatzea.</p> <p>Ekonomia-jardueraren suspertzeak eskatzen du aldaketa horiek orain egitea, fiskalitateki susperraldi ekonomikoa sendotzen laguntzeko, indarrean dagoen ongizate-estatuaren berezko gastuak eta zerbitzu publikoak mantentzeko beharrezkoa den finantza-nahikotasuna ahaztu gabe.</p> |
| HELBURUAK | <p>Hauetako dira egin nahi den arauaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Enpresa-jarduera suspertzen laguntzea, eta, horretarako, enpresa-ehuna eta gure enpresen lehiakortasuna sendotzea.2. Aberastasunaren eta enpleguaren sorrera sustatzea, enpresen inbertsioa erakartzeko neurrien bidez.3. Ekintzailtza-jarduera sustatzea, eta, horretarako, enpresa-proiektu berriak ezartzea eta prestakuntza handiko langileak erakartzea, Arabako garapen ekonomikoa lortzeko konpromisoa har dezaten.4. Zerga-saihestea, zerga-oinarrien higadura eta enpresa-etekinen lekualdatze artifiziosua prebenitzeko marko fiskalitik eratorritako betebeharrak betetzea. Nazioarteko foroetan |



| | |
|---|--|
| | <p>sustatu da marko hori, ELGAN eta Europar Batasunean, besteak beste.</p> <p>5. Sistema fiskalak behar beste diru biltzen duela bermatuko duen zergapetze-maila lortzea, beharizan publikoek eragindako konpromisoak bete ahal izateko, zerga-ordainketa sustatuz, zerga sistemako printzipio orokorrekin bat etorritik, bereziki gaitasun ekonomikoaren arabera gizarte gastuak ordaintzeko printzipioarekin.</p> <p>6. Hizkuntzaren erabileraren berrikustean aurrera egitea, aldatutako testu arauemailetan genero-ikuspegia txertatzeko, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin dadin, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko eta genero-desberdintasuna desagerrarazteko ekarpen gisa.</p> <p>7. Arabako zerga sistema Bizkaikoarekin eta Gipuzkoakoarekin bateratzea lortzea.</p> |
| <p>PLANTEATUTAKO ARAZOA KONPONTZEKO EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</p> | <p>Ukituta egon daitekeen zerga bakoitza aldatzeko berariaz egindako xedapen bat erabili ordez, xedapen arauemaile bakarria erabiltzea tresna egokia da deskribatutako helburuak betetzean ekintza-batasuna eta behar den koherentzia bermatzeko</p> |